

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 647** *Huts-zuzenketa, honako honena: 28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzekoa.*

Abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2018ko abenduaren 29ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 314. zenbakian, haren bidez pentsio publikoak handitzeko eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzeko; bada, hutsak aurkitu ditugu errege lege-dekretu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

26. orrialdean, zortzigarren lerroan, hau dio: «...(nolanahi ere, errege lege-dekretu honek bederatzigarren xedapen iragankorrean ezartzen duena aplikatuko da)...». Eta honela behar du: «...(nolanahi ere, errege lege-dekretu honek zortzigarren xedapen iragankorrean ezartzen duena aplikatuko da)...».

37. orrialdean, hogeita bederatzigarren apartatuan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamaseigarren xedapen iragankorra berridatzi ondoren, honela dio: «2012tik 2020ra arte, 247. artikuluko a) arauan aipatzen den partzialtasun-koefizientea –Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatuko dena– zehazteko...». Eta honela behar du: «2. 2012tik 2020ra arte, 247. artikuluko a) arauan aipatzen den partzialtasun-koefizientea –Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatuko dena– zehazteko...».